

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 3a / 494. zenbakia



HELDUENAKO VI. NAZIOARTEKO TXOTXONGILOEN MOSTRA



CESPA: KALE GARBITZAILEEK GREBAN JARRAITZEN DUTE/6 • PILOTA: BERGARA-ATAUN ZAPATUAN/10

ARANZADI IKASTOLA 2002-2003

BATXILERGOKO AURREMATRIKULAZIO EPEA MAIATZAREN 2TIK 10ERA

16 eta 20 urte bitarteko ikasleendako

Modalitateak:

- Osasun eta natur zientziak
- Gizarte eta giza zientziak

Unibertsitaterako lau irteera:

- Zientifiko-teknikoa
- Osasun zientziak
- Giza zientziak
- Gizarte zientziak



ARANZADI
IKASTOLA



**HERRI ONURAKO
IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA**



San Martin plaza 4. Tel.943 76 90 71. Faxe: 943 76 91 77. bergara@ikastola.net

ATREBENTZIAEZPADA/ Txotxongilluak gustatzen jatzu? Jarraitzen dozu bi urtian behiñeko muestria?



Ma JESUS VALLE
34 urte



MIREN UGALDE
35 urte



MARIAM MÉNDEZ
30 urte



CARLOS ARRONDO
58 urte



FRANCISCO SÁNCHEZ
58 urte



JUANITO AZKARATE
76 urte

Asko gustatzen jat txotxongilluak. Umiendako zein nagusixendako oso politatik pentsatzen jat. Nik, behintzat, oso ondo pasatzen dot ikusten. Aurten be baldin baneike ikusiko dot.

Askorik ez dot jarraitzen muestria. Tolosara-eta jun izan gara, umiak, eta domekan be Oñatin izan giñan. Gustau, gustatzen jat, baiña ez daukat ikusteko ohitturarik.

Gustatzen jat, oso politatik izaten die ikusteko eta ume eta nagusi berdin disfrutatzen dogula pentsatzen jat. Pena da, baiña muestria ezin izango dot jarraitu, ez naiz hemen egongo eta.

Gustatzen jat Txotxongillo Muestria, baiña kontua da errelebian lanian nabiltzen, sarritan ez dotela ikusteko aukerarik izaten. Baiña zapatuan kalekuak ikustia gustatzen jat.

Txotxongilluak gustatzen jat. Dana dala, ez dot Txotxongillo Muestria askorik jarraitzen. Bueno, kalia nabillela parian tokatzen bajat bai, ikusten gelditzen naiz, baiña bestela ez.

Ez dot sekula ikusi. Ez umiendako gauzia dala pentsatzen jatelako, nagusixendako berdin izan leike, baiña ez dot inoz muestria jarraitu. Aurten, igoal... ikusiko dogu.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK BIGARREN ILARAN APARKATZEA Batzuetan gertatzen da bigarren ilaran aparkatu beharra, minutu bateko gauzaxoren bat egiteko-edo daukagunean, eta non aparkatu ez. Baina tabernara edo erosketak egitera joateko denean gehiegixo iruditzen zaigu. Hala-koetan, autoa irekita utzi, behintzat, autoa aparkalekutik atera nahi duen pazientziak jantzitako koitaduak mugitu ahal izan dezan. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 7

KIROLA / 10

KULTURA / 12

Irukurutzeta Eguna

Domekan, maiatzak 5 irukurutzeta eguna izango da. Ospatzeko hainbat ekitaldi antolatatu dituzte.

Pilota partiduak zapatuan

Herri Arteko Pilota Txapelketaren barruan Bergarak Ataunen aurka jokatu du zapatuan.

Txotxongilo Mostra

Atzo hasi eta domekara arte bederatzi talderen txotxongilo lanak ikusteko aukera egongo da.

ASTEKODATUA

97.25

TXAPA IRRATIA ENTZUTEKO SINTONIZATU BEHARREKOA

Sei hilabeteko isilaldiaren ondoren, berriz emititzeari ekin dio Txapa irratia. FMko 97.25 sintonizatuz gero hortxe izango duzu. Astean 30 orduko emisioa du eta hainbat saio.

BESTEKEKESANA

Oso pozik gaude hain talde gogorren aurka hiru puntu lotu izanagatik. Gustura ibili ginen, partidu

hasieratik amaierara arte ordenaz jokatu genuen, eta merezitako saria jaso genuen.

Zelaira irteten garen guztietan gauzak ahalik eta ondoen egiteko asmoarekin irteten gara, baina gauzak ez dira beti guk nahi bezala irteten. Beharra berbera zen Sevillan edo Real Madrilen aurka, baina Sevillan irudi txarra eman genuen moduan, hemen edonori irabazteko moduan gaudela erakutsi dugu. Real Madrilen aurka partidua kontrolatu ahal izan genuen, eta mailari eustera hurreratu gaituzten hiru puntu lortu genituen. Beste puntu batekin salbazioa egi bihurtuko da.

AGUSTIN ARANTZABAL
'El Diario Vasco'/02-04-27

BERAIEK DIÑO/E/ Antonio Zabala



Futboleko gauzak

Dudarik gabe, futbol mundua zoratuta dago. Ikustea besterik ez daukagu Zaragoza eta Tenerifeko irudiak: jokalariek aldageletan ezkutatuta zaleen beldur eta Tenerifeko bi jokalariek zaleekin kolpeka. Benetan lotsagarria. Eta zorotasun horrek kutsakorra dirudi; Real eta bere ingurunea ez gara kanpoan geratzen. Horregatik lerro hauek bukatzearen den (gaitz erdi! Lehen mailan) denboraldiaren bi puntu bitxi aipatuko ditut:

1) Joandako denboraldia bukatu ondoren Realeko zuzendaritzak Toshack Realeko enperadore, hau da, manager nagusi, izendatu zuen, taldearen kirol proiektua zuzen zezan. Entrenatzaileak topatu ez zuten galestarrek manager eta entrenatzaile lanak bete behar izan zituen. Eta munduko salbatzailea zirudienak, emaitza txarrak eta joko txarragoarekin, denbora gutxian entrenatzen ez zuen alferra izatera pasatu ei zen.

Horrela, hain laudatua izandako gizona atzeko atletik atera behar izan zen ia-ia zuzendaritzatik baztertuta. Azkenik, hain proiektu sendo eta serioa zirudiena pikutara joan zen karretik gabeko entrenatzaile batekin bukatzeko. Ez dut Olaberen ahalmena zalantzan jarri nahi, agian oso entrenatzaile ona izatera ailegatuko da, baina pixka bat irrigarria geratzen da, inolako azalpenik eman gabe, hain serioa ei zen proiektua horrela bukatzea.

2) Beste gauza bitxi bat da Realeko partidua telebistako

telesailen zerkusia duela. Telesailen barregarri diren momentuak azpimarratzeko grabatutako barreak erabiltzen dira, ba aurten Anoetan ikusleak alaitzeko grabatutako oihuak jarri dizkigute. Benetan xelebrea. Hori gutxi balitz, peñak kokatzen diren leku batetik megafonodun tipo batek Anoetako beste realzaleak iraintzen erabili ditu bere indarrak.

Dena den, aupa Real.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAIKAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 3**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- ZAPATUA, 4**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- DOMEKA, 5**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 6**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- MARTITZENA, 7**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 8**
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 19 63
- EGUENA, 9**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuaren etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---------------------|---------------------|
| Santa Marina | Domekak: 10:30. |
| Domekak: | Labegarieta |
| 11:30, 13:00. | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | San Lorentzo |
| Lanegunak: 19:15. | Zapatuak: |
| San Pedro | 20:00. |
| Domekak: | Angiozar |
| 09:30, 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak eta | 11:30. |
| lanegunak: 19:00. | Moja |
| Sierbak | Zaharrak |
| Lanegunak: 19:30. | Lanegunak: 8:00. |
| Osintxu | Mizpirualde |
| Domekak: 12:30. | Lanegunak: 11:45. |
| Zapatuak: 19:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Elosu | Antzuola |
| Domekak: 10:30. | Domekak: |
| Ubera | 09:00, 11:30. |
| Domekak: | Zapatuak eta |
| 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| San Juan | Uzarraga |
| Domekak: 11:00. | Domekak: 10:00. |
| Elorregi | |
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1965EAN JAIOTAKOAK

1965ean jaiotakoaren afaria zapatuan, maiatzaren 4an, Txarrantxa jatetxean. Aurretik Pol-Pol tabernan elkartuko dira, 19:00etan. Afarirako izenematea Etxagi, Popis edo Pol-Pol tabernetan.

1958AN JAIOTAKOAK

1958an jaiotakoaren afaria ekainaren 15ean. Izena ematea (12 euro) Irrintzi kafetegian ekainaren 5era arte.

IKASTAROAK SAN JOXEPEN

Interneten gaineko ikastaroa izango da San Joxepen maiatzaren 9tik ekainaren 6ra, eguenetan, 17:00etatik 19:00etara. Bestalde, ordenagailuen bitartez aldizkari bat lantzeko lantegia ere izango da. Argibideak, 943 76 30 09 telefono zenbakian.

ODOL ATERATZEA

Hurrengo odol ateratzea maiatzaren 15ean izango da, erreleboka lanean ari direnek odola emateko aukera izateko.

BATASUNAREN DEIA

Faxismoari stop lelopean manifestazioa izango da domekan Bilbon, 12.00etan. Autobus txartelak Pol-Polen eta Arranon. Irteera 10:15ean Frontoitik.

JARDUNENAGENDA

OLINPIADAK ETA LANTEGIAK

Bihartik ekainaren 15era, 4., 5. eta 6. mailan ari diren gaztetxoendako olinpiadak antolatu ditu Jardunek. Zapatu arratsaldeetan izango dira jokoak: txanda-kako lasterketak, bola, toka, igelá, eta abar. Bestalde, maraka, fandango eta arin-arin lantegiak egongo dira domekan.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Gipuzkoako Haurren IV. Koral Eguna Bergaran

Zortziehun ume inguruk hartu zuten parte 1992ko apirilaren 26an Bergaran egin zen Gipuzkoako Haurren IV. Koral Egu-nean. Etorritako 19 abesbatzek, Juan Martin Elexpuruk eta Alfredo Gonzálezek konposatutako *Udaberrian Txoria* abestia kantatu zuten San Martin plazan.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Pausajia"



Ibiltzeko era (baldarra, narrasa, zentzuan).
-Solamentian eztauka pausaje jaso-jasua.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 24	3 °C
MAXIMOA Eguaztena, 24	26 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	1,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 24	26 °C	3 °C	- l/m ²
Eguena, 25	25 °C	5 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 26	21 °C	11 °C	1,4 l/m ²
Zapatua, 27	20 °C	10 °C	- l/m ²
Domeka, 28	19 °C	5 °C	- l/m ²
Astelehena, 29	16 °C	11 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK


'EN CONSTRUCCIÓN'

ZUZENDARIA: JOSE LUIS GUERIN.

HARIA. Jose Luis Guerin zuzendari sailka ezina da, eta film bitxiak egin izan ditu orain arte (*Los motivos de Berta*, *Innisfree* edo *Tren de sombras*). Donostiako Zinemaldian saritu zuten bere azken filmean Bartzelonako txinatar auzoan altxatutako eraikin baten eraikuntza prozesua jarraitu du, eta auzotarrei eman die protagonismoa.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Eguenean, hilaren 9an, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



ETXEPARE-BILINTX LIBRYDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12. 943 76 40 50 BERGARA



Bergarako jaietan Saloura 2002

Maiatzaren 17tik 21era



Eta gainera...

PORT AVENTURA

Bi egun egon
eta bakarra
ordaindu

*Hau bai
aukera!*



Los Angeles hotela.	119,00
San Diego/San Francisco hotela	127,00
Las Vegas hotela	132,50
Mediterraneo hotela	133,50
Jaime I hotela.	134,00
Augustus hotela	139,50
Europa Park hotela	141,50
Olimpus hotela.	144,50
Michelangelo apart-hotela.	145,25
Belvedere hotela	145,50
Blaumar hotela.	193,50

Luxuzko autopulmana eta mantenu osoa prezioan sartuta daude

Umeentzako eta hirugarren eta laugarren lagunentzako **deskontuak!**

Kontsulta itzazu beste hotel batzuetako egonaldien prezioak

Bidaia aseguru



Informazioa eta erreserbak Ecuador Bidaiak-en
943 76 44 45 / 943 76 15 33

Arruriaga 10. BERGARA

KALE GARBITZAILEAK/ Langileek ez dute enpresako zuzendaritzaren berririk izan eta grebarekin jarraituko dutela aurreratu dute

Cespa enpresako kale garbitzaileek muga gabeko greban jarraitzen dute

MONIKA BELASTEGI

Cespako kale garbitzaileek grebarekin jarraitu dute aste honetan. Apirilaren 22an muga gabeko grebari ekin zioten Lan Hitzarmenaren gainean enpresako zuzendaritzarekin izandako desadostasunak direla kausa. Grebaren eragina nabaria da, herriko kaleetan.

Apirilaren 22an ekin zioten Cespa enpresako hamar kale garbitzaileek muga gabeko grebari eta martitzen iluntzean, erredakzioa ixteko orduan halaxe jarraitzen zuten. Bestalde, Izaro Apeirribai langileen ordezkariaren esanetan greba hasi zutenetik ez dute Cespa enpresako zuzendaritzaren berririk izan, eta grebarekin jarraitzeko asmoa dute. Bien bitartean, kaleak eta azoka garbitzeaz Udaleko lau kale garbitzaileak arduratzen dira.

Lan Hitzarmenaren gaineko desadostasunek eragin dute greba, Apeirribai aurreratu bezala. Bi punturen gaineko desadostasunak, batez ere. Batetik, soldatak; langileek bi urterako hitzarmena eskatzen dute: 2002an %4,7ko igoera eta 2003an



Kale garbitzaileen greba nabaria da; herriko kaleetan hasi da zikinkeria pilatzen.

IPC gehi bi puntu. Enpresak, lau urterako hitzarmena eskaini die eta 2,61eko igoera globala, Apeirribairen esanetan.

Desadostasun nagusia, baina lan egutegian datza Apeirribairen hitzetan. Jai egun berezie-

tarako derrigorrezko txandak ezarri nahi ditu enpresak, urtean zazpi. Langileek txanda boluntarioak nahi dituzte egun horietarako, gaur egun bezala, ez derrigortuak. Horrekin batera, zapatuak libratzen hastea ere

nahi dute: abendura arte gertatzen den denboran 10 zapatu lan egitea, 2003an 18 eta 2004an guztiak libratzea. Enpresak, aldiz, 2005 urtera arteko proposamena egin die, urte horretan 12 zapatu libratuz.

GESPAKO LANGILEEKIN BAT

Udaleko enpresa komiteak bat egin du Cespako langileekin. Euren ustez greba privatizazio politikaren ondorioa da, eta bere garaian privatizatu ziren zerbitzuak kudeaketa publikora bueltatzea eskatzen dute. Azken batean, azpikontratazio bidezko lanek prekarietatea dakartelako.

LAB sindikatuak ere bat egin du langileekin. Euren iritziz, Udalak kudeatu beharko luke zerbitzua eta ez subkontratatu, horrek langileen baldintzak kaskartzeko baititu. Udalak auzi honetan erantzukizuna duela ere uste dute, Udala delako Cespa kontratatu duena. Horrez gain, Cespari elkarrikeretaren bidea ager dezala eskatu nahi diote, inposaketaren bidea jarraitu beharrean.

Asteleheneko osoko bilkuran ere eskaera eta galderen atalean mahai gaineratu zuen gaia Mikel Eguren Batasunako zinegotziak. Victoriano Gallastegi alkateak esan zuenez, Cespa enpresako arduradunekin hitz egin dute eta aurrerantzean ere gaia jarraitzeko asmoa du Udalak. Dena den, enpresa eta langileen arteko eztabaidan ez dutela eskuartuko aurreratu zuen.

Azken atxiloketak salatzeke giza katea

MONIKA BELASTEGI

Astelehenean izandako Batasunako hamaika kideren atxiloketa eta zazpi egoitzetako mihaketak salatzeke giza katea egin zuten hainbat lagunek martitzen arratsaldean herrian barrena. Giza katearen ondoren egindako asanblada informatiboan Batasunako kideek azaldu zuten, atxiloketa horiek ez dira "sigla batzuen aurkakoa eraso, kasu honetan Batasuna; Euskal Herriaren sub-

ranotasunaren alde lanean ari den mugimendu oso baten aurkakoa, baizik". Horrekin batera, "depresioan erortzeko uena" ez dela gehitu zuten, "mugimendu horrek oinak lurrean ondo errota dituelako".

Horrez guztiaz gain, maiatzaren 5ean, domeka, Bilbon izango den manifestaziorako deia ere luzatu zuten, eta autobuserako izena Arrano eta Pol-Pol tabernetan eman daitekeela ere gogorarazi zuten.



Batasunako kideen atxiloketa salatzeke giza katea egin zuten hainbat lagunek herrian barrena.

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA



943 76 20 61
BERGARA

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5
BERGARA
943 76 53 09

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behe.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Txapa irratia emititzen hasi da, sei hilabeteko isilunearen ondoren

MONIKA BELASTEGI

Sei hilabeteko isilaldiaren ondoren, emisioei ekin die Txapa irratia. Emisio ordu gehiago, saio gehiago eta teknologia berriarekin hasi du martxa. Horren guztiaren berri emateko, *Txapa irratia berriro uhinak okupatzen* jaia antolatute zapatuan gaztetxean.

Arazo tekniko batzuk direla medio, sei hilabetez isilik egon da Txapa irratia. Aste honetan, baina, berriz ekin diote emititzeari. Antenarako kableaketa aldatu beharra izan dute, eta, bide batez, bestelako hobekuntzak ere egin dituzte: emisore berria jarri dute, baita kontrol mahaia eta orde-nagailua ere. Inbertsio hori guztia emisioaren kalitatea hobetzeko, Gorka Ortega irratiko kide-etako baten esanetan.

Hobekuntza horiek direla eta, Bergara osoan eta Osintxun ere Txapa entzuteko aukera egongo da, FMko 97.25ean, hain justu. Bestalde, saio gehiago eta emisio ordu gehiagorekin hasiko da martxan irratia; 17 saiorekin eta aste-oro 30 emisio ordurekin, hain zuzen. Dena dela, Txapa irratiko kideen helburua eguneko hogeita lau orduetan emisioa izatea da, Gorka Ortégaren esanetan.

Oraingoz, esan dugun bezala, asteen 30 orduz emititzen hasi dira, eta denetarikoa saioak eskaintzen dituzte: magazinak, elkar-riketa saioak, musika saioak, ipuin saioak eta debateak, beste batzuen artean.



ARTXIBOA

Irratiko kideen helburua da egun osoko emisioa lortzea.

TXAPA IRRATIKO JAIA

Berriro ere emititzen hasi direla ospatzeko, jaia antolatute zapatuan; *Txapa irratia berriro uhinak okupatzen* izeneko jaia, hain zuzen ere. Honako egitaraua antolatute dute jai horren barruan: 15:30ean, kafe tertulia egongo da *Komunikabideak* gaia jorrazteko. Eta 00:00etan, berriz, kontzertua, Super Cools, Goiko Rock eta Destruccion a la Nacion taldeekin.

PAZKOETAN TXOSNA

Txapako kideek Pazkoetan txosna jarriko dutela ere aurreratu dute. Bi helburu bete nahi dituzte txosnarekin: batetik, irratia promozionatzea. Horretarako, bi egunean, zuzeneko emisioak egingo dituzte txosnatik; bestetik,

oraintsu egindako inbertsioetarako dirua atera nahi dute Txapa irratiko lagunek, eta hori posible egiteko, pinak, metxeroak eta bestelako materiala ipiniko dute salgai txosnan.

Gaur egun, hogeita hamar lagun inguru ari dira Txapan kolaboratzen. Baina Gorka Ortégak gehitu duenez, Txapa herri-za baldu nahi dute, ahalik eta jende gehienak parte hartzea irratian, eta Txapako ateak kolaboratu nahi duen guztiarendako irekita daudela aurreratu du.

Irratiko batzarrak zapatuero egiten dituzte, 12:00etan, Zabalo-tegi dorreko egoitzan. Horrez gain, informazio gehiago edo irratsaioetan zuzeneko delak egiteko telefonoa ere badute Txapa irratian: 943 76 46 46, hain zuzen ere.

Hainbat ekitaldi domekan, Irukurutzeta Egunaren barruan

M.B.

Domekan, hilaren 5ean, Irukurutzeta Eguna ospatuko dute. Ospakizunak goizeko 11:00etan hasiko dira; ordu horretan meza egongo da Pago Bedeinkatuan, eta mezaren ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

Eguerdian, 13:30 aldera, Irukurutzetara igoera egingo dute, eta 14:00etan, bazkaria (norberak berea). Bazkaldu ondoren, kafea banatuko dute nahi duen guztiarendako, eta 15:30ean, Ainhoa eta Nerea trikitilari zarautzarekin erromeria egongo da. Azkenik, 18:00etan, jaitsiera.

Antolatzaileen esanetan (Txurumili kultura elkarte eta Atsedeen Txaboleta elkarte, Bergarako, Soralezeko, Azkoitiko eta Elgoibarko udalen laguntzarekin), eguraldi txarra egingo balu, meza Atsedeen Txaboletan izango da, eta gainerako ekitaldiak bertan behera geratuko dira.

Laneko Osasunaren Eguna

Joan den egubakoitzean, apirilaren 26an, Laneko Osasunaren Nazioarteko Eguna zela eta, hainbat lantegitan ordubeteko lan-etenak egin zituzten, ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuek deituta. Lan-etena 11:00etatik 12:00etara bitartean izan zen. Argazkian, Udaleko eta Aranzadi Ikastolako langileek San Martin plazan egindako elkarretaratzea.



ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Usoa Pub



943 76 38 57
Irala 1. Bergara



ORAIN, TOREROAK MOROSOEN ATZETIK

Joan den asteko eguen arratsaldean Ibargaraiko zubitik igaro zineten askok ikusiko zenuten, beharbada, argazkiko gizona hau. Inauteriak pasatu ziren eta Pazkoetarako oraindik pare bat aste falta dira; hortaz, zer egiten zuen gizonazko hark torero jantzita? Horixe galdetu genion, eta hona erantzuna: Gasteizen zabaldu berri duten enpresa bat promozionatzen ari zen. Kontua da *frakdun kobratzaileez* aparte, orain toreroak ere hasi direla zorrak dituztenen atzetik. Hortaz, zorren bat baldin badaukazu eta torero bat zure atzetik baldin badabil, badakizu zer gertatzen den.



KUTXABUSA EGON ZEN PLAZAN

Joan den egubakoitzean, Kutxabusaren bisita izan genuen. Hamasei Jordenagailu zeuzkan barruan, eta herritarrei Internet gerturatzea zen Kutxabusaren helburua. Satelite bitartez konektatzen zituzten autobuseko ordenagailuak Internetera. Egun osoan egon zen San Martin plazan, nahi zuten herritar guztiendako zabalik. Herriko ikastetxeetako hainbat umek ere izan zuten autobus berezi hori bisitatzeko aukera: jolastu, Interneten gainean zerbait gehiago ikasi... Kutxabusean, gainera, bi irakaslek jardun zuten, erabiltzaileei beharrezko azalpen guztiak ematen.

Handik egun batzuetara, baina, astelehenean, hain zuten ere, ezezagun batzuek su eman zioten autobusari Pasaian eta guztiz kiskali zuten. Gauzak horrela, Kutxak adierazi du ez duela beste autobusik jarriko. Hortaz, bergararrak izan ziren Kutxabusa erabili ahal izan zuten azkenetako herritarrek.


BERGARAN
BULEGO BERRIA



BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

10 URTEKO
ESPERIENTZIA!



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617



Irala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

**KONDE
PANADEROKUA**



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

BERGARARRAK MUNDUAN

ARITZ ARANGUREN

28 URTE / INFORMATIKARIA / SOUTHAMPTON

“Beste kultura baten eta nire kabuz zelan moldatzen nintzen ikusi nahi nuen”

AINTZANE IRIZAR

Arrasaten Ingeniaritza ikasketak bukatu eta informatikarekin lotutako master bat egitera joan zen Aritz Manchestrerera. Orain dela sei urte izan zen hori: “Nire asmoa zen urtebetean master hori egin eta Bergarara itzultzea, baina lanean hasteko aukera izan nuen eta hemen geratu nintzen”, gogoratzen du Aritzek. Arrasaten ikasten ibili zenean, gurasoen etxean bizi izan zen: “Horrexegatik, baneukan gogo beste kultura baten eta nire kabuz zelan moldatzen nintzen ikusteko ere”, azaldu digu Aritzek.

Gaur egun, IBM informatika enpresan lan egiten du, komertzio elektronikoaren alorrean, hain zuzen ere.

Gustura dago Aritz Ingalaterran. Ondo moldatu da hango bizimodura, baina hasierako hilabeteak gogor samarrak egin ei zitzaizkion: “Dena ezberdina zen niretako, ingelesa ere ez nuen oso ondo ezagutzen eta nahi adina ere ezin nintzen komunikatu”, diosku. Hasierrako muga haiek, baina, segituan desagertu ziren. Neskalaguna ere badauka, esko-



ziarra, eta harekin batera bizi da duela urte batzuetatik hona.

Orain oso gustura dagoen arren, badaude faltan igartzen dituen hainbat gauza: “Gauza askoren hutsunea nabaritzen dut: lagunak, familia, Euskal Herriko mendiak eta poteoa”.

Ingalaterrako bizimodua-

“Kafe bat hartzera joatea ere alde aurretik planifikatu behar izaten da hemen”

ren ezberdintasun nabarmena, Aritzzen ustez, zera da: “Hemen dena alde aurretik planifikatu behar izaten da; Bergaran, adibidez, kalera irten eta beti topo egiten duzu norbaitekin kafe bat hartzeko. Baina hemen hori ere planifikatu egin behar da”.

Etorkizunari begira, zera esan digu Aritzek: “neskalaguna gaztelania ikasten ari da eta baliteke pare bat urte barru hemendik alde egitea; edoze-lan ere, hori ere ikusteko dago oraindik ere”.

MINGAINARITIRAKA



Agurtzane Olabarria

BARAZKI ETA LANDARE SALTZAILLIA

Era guztietako barazkixak saltzen ditu Bergarako azokan eta baserrixan bertan Agurtzane. 38 urte dauzka eta Bolubarri baserrikoa da. Negutegi mordu dauzke hantxe.

Azokako saltzaille lanian, ze gustatzen jatzu gehixen?

Jentia kin hartu-emona eukitzia.

Eta gutxien?

Goiz jaikitzia eta goiz osua zutik egotia; oso nekatuta ailegatzen naiz etxera.

Ze dauke baserriko produktuek bes-tiek ez daukena?

Beste guztiak baiño askoz freskuaguak dira eta jentiarri konfiantzia emoten jaue, badakixe-eta nunguak diran, zela hazitakuak diran...

Jentia kin apreziatzen dit du bertako ortuetan hazitako produktuak?

Bai, gero eta gehixago, gainera. Lehen, etortzen ziran gehixenak emakume nagusixak izaten ziran; orain, gero eta gazte gehixago etortzen da.

Ze alde on dauzka baserrixak?

Herritik kanpora egotia, horrek dakarren lasaittasunakin, nahiz eta guk fabrikaz inguratuta garen.

Alde txarrak be eukiko dit du, ezta?

Edozer egit teko kotxia hartu bihar izaten dogula.

Baserriko lana gogorra da, ezta?

Bai, fisikoki gogorra da, baiña sasoi eta osasuna eduki ezker o, ondo eroaten da.

Lanak lagatzen dotsun denbora libria n ze egittia gustatzen jatzu?

Domeketan mendira jutia gustatzen jat.

Gustoko mendi bat?

Anboto.

Loterixia tokau ezker o, ze egingo ziñuke?

Ingurukuei emon eta bihar dit tudan gauzak erosi, baiña bestela, bizimodu normalakin jarraitu.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIA HURA / Eider Lete

GREZIA / 2000ko maiatza

Ezkonbidaian joan ginen Greziara senarra eta biok. Hamabi egun egin genituen han. Lehenengo bi egunak Atenasen pasatu genituen. Hiri hartan, La Plaka auzunea azpimarratuko nuke: Atenasko alde zaharra da, eta Akropoliaren azpiko aldean geratzen da; xarma berezia dauka: denda txikiz josita dago, jate txiki mordo... Oso auzo polita da. Akropolia ere asko gustatu zitzaigun. Atenasen, batez ere, goizez ibiltzen ginen, beroa izugarria izaten zelako. Goizean goiz jaikitzen ginen hiria bisitatzeko eta arratsaldean hotelean egoten ginen.

Esan behar da, era berean, oso zikina dela Atenas, eta sekulako kutsadura dagoela. Akropolitik, esaterako, hiri gainean laino antzerako bat ikusten da, kutsadurak eragindakoa.

Atenasen bi egun pasatu eta gero, Rodas uhartera joan ginen; Egeo itsasoan dago uhar-te hura, Turkiarekin mugan. Bost egun egon ginen Rodasen. Automobil bat alokatu eta uhar-te osoa ikusi genuen. Uharteko iparralde oso turistikoa da; hegoaldea, berriz, oso pobrea da, ez dago ezer. Rodas hiriburua oso ederra da; harresiz inguratuta dago, eta bi kai dauzka, oso politak. Uhar-te erdialdean Lindos herrixka dago, kostaldean; oso herri polita da, labar baten ertzean dago.

Dena dela, niri gehien gustatu zit zaidana Santorini uhar-tea izan zen; txundituta geratu nintzen. Oso uhar-te txikia da; egun bakar baten uhar-te osoa zeharkatu genuen automobilez. Esaten dutenez, duela urte mordo sumendi bat zen Santorini, eta azkeneko aldiz sumendiak eztanda egin zuenean, hiru zatitan banatu zen uhar-tea. Hiriburua, Fia, zoragarria da. Hura ere labar baten dago. Uhar-te hartako beste herri oso polit bat la izenekoa da. Duda barik, Santorini izan zen bidaian gehien gustatu zit zaidana.



“Atenasen kutsadura handia dago, nahiko hiri zikina da”


“Santorini uhartearekin txundituta geratu nintzen”

AINTZANE IRIZAR



Fia-ko, Santorini uharteko hiriburuko, ikuspegi bat.

**GOIERRI
AUTOGIDARIEN ESKOLA**



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

**Zuri Beltz
margoak**

Barnealde eta kanpoaldean erreferma

Pintura zerbitzu osoa

Moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
ONATI
943 78 24 13

PILOTA

Bergarak 0-3 irabazi zion Atauni Herri Arteko Pilota Txapelketan

Itzulera partiduak zapatuan jokatu dituzte Udal Pilotalekuan, 19:00etan

E.M.

Bergarako pilotariak 0-3 irabazi zioten Ataungo taldeari aurreko zapatuan, Herri Arteko Pilota Txapelketako lehenengo kanporaketan. Bihar, zapatua, itzulera partiduak ezustekorik ez bada, Bergarak Zarautzen kontra jokatu du hurrengo kanporaketa.



Asier Larrañagak eta Beñat Iñarrak 18-22 irabazi zuten gazte mailako partidua.

Bergarak eskura dauka bigarren kanporaketarako txartela. Aurreko zapatuan, uste baino errazago nagusitu zitzaizen atandarrei: Jon Larrañagak eta Ibai Altunak kadete mailako partidua irabazi zuten (19-22); gazte mailan, Beñat Iñarrak eta Asier Larrañagak irabazi zuten (18-22); eta azkenik, senior mailan, Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrezrek loretu zuten alde handiena (9-22).

Itzulera partiduak bihar, zapatua, izango dira, 19:00etan. Kanporaketa gainditzekotan, Bergarak Zarautz hartuko du hilaren 10ean Udal Pilotalekuan.

BERGARA HIRIA MARTITZENEAN

Bergara Hiria Txapelketako final-laurdenetako partiduak izango

dira martitzenean, hilaren 7an, Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Promes mailan, Iriartek eta Garmendiak Beitiaren eta Araneren aurka jokatu dute eta amateurretan, Azpiroz-Iriarte eta Muguruza-Argote bikoteak izango dira aurrez aurre. Ander Muguruza bergararraren debuta izango da martitzenean. Igor Gutiérrez sail-

katuta dago finalerdietarako, Eguzkitzarekin batera.

Bestalde, Pilota Saileko zozketan 4.766 zenbakiak jaso du lehen saria. Irabazleak buruz buruko finalerako bi sarrera eta 500 euro jasoko ditu. Bigarren saria 3.770 zenbakiarendako izan da. Saria, lau lagunendako afaria Infernukua tabernan eta 200 euro.

Beti Bustiko gaztetxoak bikain ibili ziren zapatuko proban Bergaran

Beti-Bustiko gaztetxoek emaitza bikainak lortu zituzten zapatuan Deba ibaian, Usondo parkearen ondoan, jokatuak proban. Koxtape, Santiagotarrak, Atl. San Sebastian eta Beti-Busti taldeetako piraguitak izan ziren lehian, 49, guztira. Infantil A mailan Santiagotarrak taldeko Joan Crespok irabazi zuen. Bergararrei dago kienez, Markel Cestafe hirugarren sailkatu zen, Martxel Alberdi laugarren, eta Ibon Etzezarreta seigarrena izan genuen. Infantil B mailan, berriz, Leire Fernándezek egin zuen denbor onena, baina epaileen aldetik jasotako penalizazioen ondorioz, bigarren postuarekin konformatu behar izan zen. Atl. San Sebastian taldeko Kristina Salaberriak irabazi zuen proba.

NAGUSIEK, MAILA ONA

Beti-Bustiko nagusiak ere emaitza onak lortzen ari dira. Euska-



Gipuzkoako lau taldetako piraguitak izan ziren zapatuko proban.

diko eta Espainiako txapelketako probetan Markel Agirrek lehen postua eskuratu du eta Iraitz Artola, berriz, bigarren izan da. Haiekin batera, Lierni Errasti eta Eneko Iturrospe Seo D'Urge-

lleko proban izango dira maiatzaren 11n. Eta proba hori Espainiako Txapelketarako puntuagarria izango da. Maiatzaren 26an, berriz, Gipuzkoako Txapelketa jokatu da Irunen.

FOTOKIROLA



Igoera ligaxkako azken partidua zapatuan

Bergarako senior saskibaloitza taldeak Goierriren aurka jokatu du zapatuan kiroldegian, 16:00etan. Igoera ligaxkan bergararrak laugarren postuan dira eta lehen hirurek lortuko dute lehen maila probintzialera igotzea. Bergarak beharrezkoa du bihar partidua irabaztea, eta, horrez gain, Andoingo Ganbara taldeak Aldapeta liderraren aurka gal dezala komeni zaio. Urbina entrenatzailearen esanetan, laugarren postuari eusten badio ere, baliteke mailaz igotzea Bergara. /E.M.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

Kopa txapelketako bi partidu jokatu dira astebukaeran Kiroldegian

Astebukaeran kopa txapelketako bi partidu jokatu dira Labegaraietako Kiroldegian. Zapatuan Artusamak eta Kampazar taldeen arteko norgehiagoka izango da, 19:30ean, eta domekan Errotagain eta Dedo Pafarru taldeek neurtuko dituzte indarrak, 18:30ean. Antolatzaileek zuzenduko dituzte partiduak.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Bergara-Azkuene
Infantilak. Zapatua. 10:30. Ipintza.
Bergara-Lagun Onak
Ohorezko mailako gazteak. Zapatua. 12:15. Ipintza.
Bergara-Intxurre
Lehen erregionala. Zapatua. 16:30. Ipintza.
Bergara-Usurbil
Neskak. Zapatua. 18:30. Ipintza.
Bergara-Eibartarrak
Bigarren mailako kadeteak. Domeka. 10:00. Ipintza.
Bergara-Segura
Lehen mailako gazteak. Domeka. 11:30. Ipintza.

ESKUBALOIA

Bergara-Zarautz
Kadete mutilak. Zapatua. 17:45. Kiroldegia.
Bergara-Pulpo Zumaia
Gazte mutilak. Domeka. 12:15. Kiroldegia.

SASKIBALOIA

Bergara-Goierri
Senior mutilak. Zapatua. 16:00. Kiroldegia.

EMAITZAK

FUTBOLA

Bergara 0 Lagun Onak 1 (Preferente maila)
Zestoa 3 Bergara 0 (Lehen erregionala)
Antoniano 2 Bergara 3 (Neskak)
Bergara 2 Mariño 0 (Ohorezko m., gazteak)
Elgoibar 3 Bergara 2 (Lehen m., gazteak)
Tolosa 8 Bergara 0 (Ohorezko m., kadeteak)
Ikasberri 1 Bergara 0 (Bigarren m., kadeteak)
Hondarribia 0 Bergara 3 (Infantilak)

ESKUBALOIA

Bergara 31 Deustu Loiola 25 (Senior mutilak)
Bergara 18 Aloña Mendi 18 (Gazte mutilak)
Bergara 26 Tolosa 22 (Kadete mutilak)

SASKIBALOIA

Intxaurren 80 Bergara 71 (Senior mutilak)
Arrasate 38 Bergara 52 (Gazte mutilak)
Gros 49 Bergara 40 (Kadete mutilak)

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



BERGARA
Miren Larrañaga
Maiatzaren 5ean 6 urte.
Urte askotarako!
Mikel eta Ainhoa.



ELGETA
Maialen Arantzeta
Maiatzaren 9an 13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Julen Cabo
5ean urtebete.
Zorionak! Gurasoak
eta familiakoak.



BERGARA
Manex Larrañaga
Maiatzaren 3an 7 urte.
Zorionak eta muxu handi
bat! Gurasoak eta Izar.



ELGETA
Oskar Sarasua
Maiatzaren 5ean 9 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



BERGARA
Jabi Sanchez
Apirilaren 30ean 27 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



BERGARA
Natalia Murillo
Apirilaren 29an 31 urte.
Urte askotarako!
Alberto eta etxeokak.



BERGARA
Lorea Palacios
Maiatzaren 3an 4 urte.
Zorionak eta muxu handi
bat sorgintxo! Etxekoak.



BERGARA
Ane Lorea Larrañaga
Apirilaren 28an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ander Etxaniz
Apirilaren 27an urtebete.
Zorionak! Haizea, Jon,
Enara eta etxeokak.



BERGARA
Maider Gorosabel
Maiatzaren 5ean
urtebete. Urte askotara-
ko! Aita, ama eta Julen.



BERGARA
Asier Kortabarria
Maiatzaren 4an 10 urte.
Urte askotarako!
Aitor eta etxeokak.

BABESLEA

Raizabal

**Urtebetetze
tarta**
zuk nahi duzun
**argazkiarekin
eta formarekin!**

Artekalea 9
Tel. 943 76 11 83

Bidekurutzeta 20-22
Tel. 943 76 12 19

Eta agur-afarietarako tartak



BERGARA
Ainhoa Pera
Apirilaren 30ean 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Paul Azkargorta
Apirilaren 30ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.




BERGARA
Ruth Mancho
Maiatzaren 5ean 3 urte.
Zorionak! Gurasoak,
amama eta Sara.



BERGARA
Miren Gonzalez
Maiatzaren 9an 5 urte.
Urte askotarako!
Mariñe eta gurasoak.

Adi! Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxungo



Latexeko burukoak

**ONDO
LO
EGIN!**

ESKaintza berezia
Koltxoia erosteagatik
koltxoia estaltzekoa opari



Oinarri tapizatua



Latexeko koltxoiak



Era guztietako koltxoiak




'Aluminium' ohe artikulatuak

ederTu

Zatoz Masterreka 9ko
erakustokira

Barrenkalea 23. Tel. 943 76 29 65




Habi-ohea



Kanape erainsgarria

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBerezibar

Zein motatakoa da Ozaetako biribiluneko arbola:
haritza, pagoa ala ezkia?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Fotinia

Photinia X Fraseri

MAITANE ARIZABALETA

Bost metro inguru har dezakeen tamaina txikiko zuhaitz edo zuhaixka. Hostoak iraunkorak, obalatuak eta larrukarak dira; udaberrian kimu berriak gorri kolorekoak izaten dira eta gero, udazkena heltzen doan neurrian, kolore berdea hartzen dute. Photinia udaberri bukaeran loratzen da, eta errazimoak sortuz, bost petalodun lore zuriak ematen ditu.

Itzala ondo toleratzen duen arren, nahiago ditu toki eguzkituak. Baina haize hotz eta lehorrengatik babestuta egon behar du. Bestalde, 10-15 graduko tenperatura toleratu eta gure lorategietako plaga gehien erasoak ere jasaten ditu.

Espezio hibrido horrek jatorria lorezaintzan du eta, batik bat, lorategietan erabiltzen dute, zuhaixka apaingarri gisa (Bergaran Mintegi kalean), nahiz eta zuhaitz moduan ere ikus ditzakegun gure herriko kaleak apaintzen. Bergaran, esate baterako, Dr. Fleming kalean daude. Loreen edertasunagatik baino gehiago, bere hostoen edertasunagatik landatzen dute, eta urte sasoi honetan (udaberrian) daude ederren.

“Udaberri bukaeran loratzen da eta bost petalodun lore zuriak ematen ditu”



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

1.

Zein frekuentzitan entzun daiteke Txapa Irratia?

- A/ AMko 103.5.
- B/ FMko 91.5.
- C/ FMko 97.25.

2.

Zenbat pegatina aterako ditu Jardun euskara elkarteak Pazkoetan?

- A/ 5.000.
- B/ 3.000.
- C/ 7.500.

3.

Zein izango da Bergarako senior saskibaloitaldearen azken aurkari igoera ligaxkan?

- A/ Goierri.
- B/ Pulpo.
- C/ Ordizia.



Super BM emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileron artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANTON UGALDE erandako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Anton!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: 1881n / Galde debalde: 1-C, 2-C, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Bio Pascual

Tropical eta Mediterraneo zaporeak, 33 cl.

0,47 €

78 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 3a / 111. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Autobus zerbitzua zabaltzearen aldeko sinadura bilketa egin dute herrian

AINTZANE IRIZAR

Herriko hainbat guraso sinadurak batzen ibili dira, autobus zerbitzu hobea eskatzeko. 104 sinadura batu dituzte guztira, eta Antzuolako Udalean aurkeztu dituzte. Hala, Udalarari eskatu diote ekain erditik uztailean Bergarara joateko Udal Zerbitzu bat ipintzea.

Herriko 104 lagun sinadurak batzen dituen idatzia aurkeztu zuten astelehenean udaletxean. Idatzi horren bidez zera eskatzen diote Antzuolako Udalarari: "Bergarako igerilekuetarako joan-etorriari egiteko, behintzat, garraio bat ipintzea Udal Zerbitzu moduan". Idatzi horren sinatzaileek argi laga dute, ordea, ez dutela inola ere eskatzen autobus zerbitzu hori doan izatea.

Sinadurak batzen ibili diren herritarretako batek zera adierazi digu: "Ez dugu urte osorako autobus zerbitzua eskatzen, badakigut eta gastu handia ekarriko lukeela. Guk eskatzen dugu udako hila-beteetan autobus gehiago jartzea, Antzuolako jende asko joaten delako Bergarako igerilekuetara". Gaur egun badaude Bergarara joateko hainbat autobus, baina ordutegia ez da batera ego-



Begarako igerilekuetara joateko garraio bat ipintzea eskatu dute, Udal Zerbitzu moduan.

kia. Eguerdiko hamabietan dago bat, goizegi, euren ustez, eta bostetan beste bat, beranduegi igerilekuetara joateko.

Umeen gurasoenak dira bafu dituzten sinadura gehienak, baina badira herriko hainbat neska-mutikorenak ere.

UDALAK ESKAERA AZTERTUKO DU

Mireia Unamuno alkatearen esanetan, Udalak berak ere betidanik izan du garraio publikoaren gaineko kezka, eta orain herritarrek aurkeztu duten eskaera hori aztertuko dutela adierazi digu. Mireiaren esanetan, igeri-

leketara joateko ez ezik, herritarrek bestelakoetara joan beharra ere izaten dute Bergarara: medikuarenera, enkarguetara...

Bestalde, Mireia Unamunok azaldu digunez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena edo ardurara da garraio publikoa.

HERRITARREN HITZA / Alaitz Jauregi • Gizarte laguntzailea

Antzuolako jaietako paranoia

Joeee... hamarrak bost gutxiu dia, hamarretan diania jo bihar, eta ni preparatzeke! Nik dauzkat gibelak! Azkarrau egitteko, pijamian prakak belaueraino erremangau uniformeko gona azpira, kaikua lotu, txapela jarri eta banoia. Atetik irten eta Diossssss!!! Kriston freskuria hanketan! Pare-parian mangeriakin kaliak garbitzen! Hi, mosolo! Jo, zelako aurpegi ezaguna, ai ama! Korreotako sellotako buruhaundi hori data! Ia Surpe parian noia, txistu hotsa entzuten dot, kaka zaharra! Ez naiz alleatzen! Hiru

datoz. Ze joten ete dihardue? Zelako geizki... Haiba la letxe! Maria Teresa Kampos, Karmina Ordoñez eta Ana Rosa Kintana dirata! E!, zeinek jo dost ipurdian? Harrapatzen ba haut! Bueltia hartu eta han topatzen dittut kabesuduak! Zeintzuk eta Arzallus, Otegi eta Iturgaitz! Kareta barik irten dira, baiña betiko marineruak baiño bildur



"Hau da goiza, nahixau neban ohetik jaiki ez banitz"

Badakitt zer egin. Egunkarixa erosi eta etxera jungo naiz.

haundixau emoten dabela! Goruntz natorrela, tipo bat ikusten dot pasamontañas batekin abadexeko paretan pintadak egitten! "Euskaraz eta kitto!" ipini dau. E! Zu! diar egin eta bueltia hartu dabenian... Garzon da!!! Buenooo... hau da goiza, nahixau neban ohetik jaiki ez banitz. Ya esta.

Hartu egunkarixa eta dirua etaratzerauzkuan aluzianauta geratu naiz: euro bakoitzak euskal preso baten argazkixa dakar eta "presoak etxera" jartzen dau. Zeozer ganorazkua ikusi dotenian be... Ordaindu eta banoianian "España va bien" ez dost ba esaten dendari-xak! Nahikua da, e! Zera esan jat neure buruari: Alaitz, hobe dozu ohera jun eta ez jaikitzia mozkorra ondo pasau arte.

Aste hontako artikulua Kalebarrengo zubixan nere artikulua serixo hartu ala ez dudetan egoten zala esaten zostenari dedikatzen jat.

LABUR

Jai batzordea hasi da herriko jaiak antolatzen

Txistulariak, dantzariak, Udaleko arduradunak, gaztetxe-koak, tabernariak, Gurasoen Elkartekoak, kintoak eta beste hainbat herritar ibiliko dira aurtengo herriko jaiak antolatzen.

Lehendabiziko batzarrak egin dituzte dagoeneko, eta aurtengo jaietarako berritasun bat aurreratu diote KONTUOLARI: egubakoitz gaue-rako txokolate jana antolatuko dute.


Imersoko bidaietarako hainbat eskaera

Imersok eskaintzen dituen bidaietarako eskaerak egiteko epea bukatu da dagoeneko. Antzuolako Udaleko Gizarte Ongizateko bulegoan hamasei eskaera jaso dituzte guztira. Hamasei lagun horiek aurretik bidaia horietan sekula egon ez direnak dira. Behin eskaerak egin da, zozketa egingo dute laster, eta uztaile-rako, gutxi gorabehera, jasoko dute erantzuna izena eman dutenek.

Bidaia horiek urritik datorren urteko apirila bitartean izango dira.

Oraingo egunean egin dute Udaleko osoko bilkura

Aurreko asteko KONTUOLAN akats bat egin genuen. Joan den asteko egunean osoko bilkura egingo zutela iragarri genizuen, eta hantxe aztertuko zutela Euskal Herriko Naziotasun Agiriaren gaineko mozioa. Hori ez zen horrela. Izan ere, hilabeteko lehen egunean batzen da Antzuolako Udaleko udalbatzarrak. Hortaz, atzo, eguna, egitekoak ziren maiatzeko osoko bilkura, eta hantxe aztertze-koak Antzuolako Bai Euskal Herriari taldeak aurkeztutako mozioa.



Kanpandorreko erlojuetako bat jaitsi zuten, konpontzeko

Kalebarren aldera begira dagoen kanpandorreko erlojua izorratuta zegoela-eta, kendu egin zuten joan den astean. Kanpandorretik jaitsi dutenez, aberia konpontzeaz gain, erlojua pixka bat eraberritzeko aprobetxatu dute aukera. Horrela, orratzak pintatu eta junta berriak jarri dizkiote, besteak beste. Udaleko langileek egin dituzte konponketa eta eraberritze lan guztiak./A.I.

KIROLA

Paleta Txapelketako finalerdiak zapatu goizean jokatu dira

Bihar, zapatua, jokatu dituzte Herri Mailako Paleta Txapelketako finalerdiak. Goizeko bederatzita eta erdietan hasiko dira.

Maila bakoitzean bina partidu jokatu dituzte; horrela, erabakita geratuko da maiatzaren 11n zein bikotek jokatu dituzten txapelketako finalak.

Aritz Berraondok bigarren mailan jokatu du

Xabier Imazen aurka 22-15 galdu ondoren, bigarren mailara jaitziko da Aritz Berraondo.

Joan den egubakoitz gauean jokatu zuten partidua, Sondikako frontoian; biek zuten lehen mailatik bigarrenean jaisteko arriskua, eta ez zen batere partidu ona izan, urduritasunak eraginda, beharbada.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Maiatzak 4

16:30: Antzuola-Almen (neskak)

Maiatzak 5

11:00: Antzuola-Antoniano (kadeteak)

PILOTA

Maiatzak 4 (Pala txap. finalerdiak)

Lehen mailan

09:30: Manso-Iturbe / Arbulu-Zabalo

11:30: Azkarate-Jauregi /

Toledo-Peñalba

Bigarren mailan

10:30: Azkarate-Rodríguez /

Arregi-Gezalaga

11:00: Biteri-Biteri / Peñalba-Segurola

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 4 Gazteak B 3 (2. erreg.)

Zumaiko 5 Antzuola 0 (neskak)

Antzuola 3 Eibartarra 4 (gazteak)

Martutene 2 Antzuola 7 (kadeteak)

OHARRAK

ZORION AGURRAK

Berrigara aldizkarian zuen senitartekoak edo lagunak zoriondu nahi baldin badituzue, Antzuolako Udal Liburutegira eraman ditzakezue argazkiak. Zorion agurra argitaratu nahi duzuen asteko astelehenean eraman beharko dituzue argazkiak liburutegira, arratsaldeko bostetik zazpitarera.

ODOL ATERATZEAK ASTELEHENEAN

Datorren astelehenean, maiatzaren 6an, egingo dituzte urteko bigarren odol ateratzeak. Oraingo honetan astelehenez izango dira ateraldiok, eta ez eguaztenean, ohi bezala. Parrokiako aretoan egingo dute odol ateratzea, arratsaldeko seietatik aurrera.

BOTEPRONTOAN/ Jose Anjel Arbulu · Odol Emaileen Elkarteko arduraduna

“Odol emaielen portzentajea askoz handiagoa da herri txikietan hiri edo herri handietan baino”

Datorren astelehenean, maiatzaren 6an, egingo dituzte urteko bigarren odol ateratzeak Antzuolan. Hori aitzakia hartuta, Antzuolan Odol Emaileen Elkarteko arduradun Jose Anjel Arbulurekin berba egin dugu.

Noiz eta zelatan sortu zen Antzuolan Odol Emaileen Elkartea?

Nik neuk hemezortzi bat urte daramatzat elkartean, baina hori baino lehenago sortutakoa da; hogeita bost bat urte izango dira. Bittor Arbulu eta Benito Ramírez izan ziren elkartearen sortzaileak.


Zenbat odol emaiela dago gaur egun Antzuolan?

Odol emaiela asko, baina beti

ematen dutenak laurogei bat egongo dira. Kontua da 350 bat daudela elkarteko zentsuan, baina kontuan hartu behar da odola behin ematea nahikoa dela zentsu horretan sartzeko. **Urtean zenbat odol ateratze egiten dira herrian?** Hiru: urtarrilean, maiatzean eta irailean.

Gizartea kontzientziatuta dagoela uste duzu?

Bai; herri txikietan, batez ere. Herri txikietan gauzak errazago egiten dira herri handietan edo hirietan baino. Odol emaielen portzentajea askoz handiagoa izaten da hirietan baino. Osasunaren Munduko Erakundeak esan du batez besteko ona dela urtean 1.000 laguneko 50 odol emate egotea.



Antzuolan odol ateratze bakoitzean 80 bat emaiela etortzen dira; hortaz, urtean 240 bat. Horrek esan nahi du oso emaitza onak dauzkagula. Nik uste dut hori gertatzen dela informazioa errazago zabaltzen delako herri txikietan.

Zelan animatuko zenituzke zalantzan dauden horiek?

Esango nieke oso erraza dela odola ematea; eta gainera, besteei laguntzeko era bat dela. Norberari ia ezer kostatzen ez zaion ekintza baten bitartez, jende askori laguntzen diozu. **Zer egin behar du lehen aldiz odola eman nahi duenak?** Astelehenean, 18:00etan, parrokiako aretoa etortzea nahikoa da. Gero, han esango diote zer egin behar duen.

Igor eta Txomin



Margoak
orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164

Tomas Gezalaga

Apaintetarako eta
industriarako pinturak
•
Paper margotutak
•
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

tabema eta
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua
eta
barnizaketa

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko maiatzaren 3a / 97. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Goieskolako Topaketek 200 neska-mutiko batuko dituzte

OXEL EROSTARBE

Gaur, egun osoan, Debagoieneko Eskola Publikoen Topaketa izango da Elgetan. Bergara, Arrasate, Antzuola, Aretxabaleta, Soraluze, Eskoriatza, Aramaio, Oñati eta Elgetako neska-mutikoen euskal joko tradizionalak jolasteko aukera izango dute.

Goieskolak antolatutako topaketan Debagoieneko 200 bat umek hartuko dute parte. Bergaratik San Martin Agirre Ikastetxeko umeak etorriko dira, Arrasateko Musakola, San Andres eta Erguin ikastetxeetakoak, Eskoriatzatik Luis Ezeizakoak, Aretxabaleatik Kurtzeberrikoak, Aramaiotik San Martinekoak eta Oñatitik Errekaldokoak. Soraluze, Antzuola eta Elgetako umeek ere hartuko dute parte topaketetan.

Goizeko hamarretan ekin, eta egun osoan joko tradizionalak jolasteko dira hainbat herritako neska-mutikoen. Izan ere, topaketa horren helburuetako bat ikastetxe guztietako umeek elkar ezagutzeko izango da.

Umeendako, zenbait jolasez osatutako zirkuitu bat gertatuko



Debagoieneko Eskola Publikoen Tokapetan, herri kiroletan lehiatuko dira hainbat herritako neska-mutikoen.

dute antolatzaileek. Horrela, kro-moak, tortolosak, soka, txingoka, boloak, kanikak, iturriak, igela, diabolak, yo-yoak eta haria egongo dira, besteak beste, jolasteko.

Bazkaldu ondoren herri kiroletan jokatzeko aukera izango dute. Ikastetxeetako umeekin taldeak osatu eta txorokil batzean, harri jasotzen, txingetan, zaku las-

terketetan eta sokatiran lehiatuko dira umeak.

Joko berrietan jolasteaz gainera, elkar ezagutzeko balio izango du gaurko topaketak.

HERRITARREN HITZA / Iban Retolaza • Langilea

Herri bizia

Nik herri bizia bezala, jende konprometitu eta aktiboz osatutako herria ulertzen dut. Herritarrek beraien artean ekintzak antolatzea, ospakizunetan biltzea edo eta parte hartzea, herria bizirik dirauenaren seinale ditugu.

Gure herria txikia izanik, inguruko hainbat herri baino zailtasun handiagoak ditugu ekintza entzutetsu, makro-jaialdi eta antzekoak antolatzeko. Elgetako aurrekontuek ez dute askotarako ematen eta hortaz ekintza xumeagoekin konformatu behar.

Garai batean Ozkarbi

elkartek zeresan handia izan zuen herri honen bizitasunean. Ekintza ugari antolatzen zituzten eta herritar askok parte hartzen zuten. Herriko jaien antolakuntza ere bere esku egon zen urteetan, udaletxea laguntzaile moduan zuelarik.

Geroago, Ozkarbi elkartearen protagonismoa galtzen joan ahala, krisialdia etorri zen. Hala ere, herritarren lan eta borondate onean oinarrituz,



“Herri giro polita sortzeko ez da behar ikuskizun harrigarrik”

jaiak, sagardo eguna eta beste hainbat egun berezi. Azkena, orain dela gutxi Etorrek butano

azken urteotan herri hau berriz ere bizituz doala esango nuke. Bide berriak zabaldu dira eta jendea bide ezberdinetan lanean ari da.

Herri giro polita sortzeko ez da ikuskizun harrigarrik behar. Honen lekuko ditugu esaterako hurrengo asteburuan ospatuko dugun Asentzio Eguna, herriko

bonbonarekin eginiko apustua. Herritarren artean (eta baita herritik kanpo ere) ikusmin handia sortu zuena. Egunean bertan, giro polita sortu zuen, jende mordoxka bilduz.

Egun edo ospakizun guzti hauek gauza bat behintzat badute komunean: herriko jende asko biltzen dute, orokorrean adin ezberdinetakoak eta guztiak ere jaiarekin gozatzeko prest, jakina, bakoitzak bere erara.

Ea ba aurrerantzean ere herria bizirik mantentzeko gauza garen. Ez dadila bihurtu jan, lo egin eta turismorako tokia soilik.

LABUR

Datorren urtean beste hamabost ikasle eskolan

Hamabost neska-mutikok egin dute datorren ikasturterako matrikula. Kopuru horrekin, aurreko urteetako matrikula kopuruaren joerari eusten zaio, gutxi gorabehera.

Datorren urtean 77 ikasle izango ditu eskolak. Gainera, ordurako jantokia ere eginda egongo dela espero dute.

Maiatzaren 12an izango da aurtengo Asentzio Eguna

Datorren astean, maiatzaren 12an, izango da aurtengo Asentzio Eguna. Aurten ere Elgetako gaztetxeak hartu du jai antolatzearen ardura. Egitaraua urterokoa izango da: arrantza txapelketa, meza, dantzariak, bazkaria eta erromeria. Bazkarirako Haizean eta gaztetxean eman daiteke izena, bederatziko euro ordainduta.

Elgetako amama nagusiena hil zen aurreko astean

Aurreko astelehenean, Hilari Beistegi hil zen, orain arte Elgetako amama nagusiena zena; 95 urte zituen. Orain, Maria Vicente Lazkano da herritako nagusiena: 93 urte bete berri ditu. Bibiana Letona ere Mariaren urte berekoa da, 1909koa, hain zuzen. Honek ordea ez ditu 93 urte bete.

Zuberotarrek Bat zozketako zenbaki saritua 763 izan da

Domekako ONCEko azken hiru zenbakiak osatzen dute zenbaki saritua. Zenbakiaren jabeak Zuberoan bi lagunendako asteburu bat irabazi du. Bigarren zenbaki saritua 927 izan da; horrek sukaldaritzako liburuak irabazi ditu. Zozketako irabazleek Haizean jaso dezakete saria.

ARETO FUTBOLA

Joko bikaina egin, eta sailkapeneko aurreneko postuetan dira kanpoko taldeak

O.E.

Zapatuan hasi zen aurtengo Areto Futbol Txapelketa. Azkenean, uste baino talde gehiagok eman dute izena txapelketan. Elgetako bi talde bakarrik izango dira: Txapela eta La Kokotxa, hain zuzen ere. Gainerakoak Durango, Eibar, Arrasate eta Bergarakoak dira.

Azkenean, bederatzita taldek hartuko dute parte Areto Futboleko Txapelketan. Eta Elgetakoak bi bakarrik izango dira: Txapela eta La Kokotxa. Bi talde horiek zaila izango dute aurrenekoen artean izatea, aurtengoan kanpotik etorriko diren taldeen maila oso ona da eta. Hori argi eta garbi ikusi zen lehenengo jardunaldian. Txapelak 6-3 galdu zuen Spias

taldearen aurka. Eta La Kokotxa taldeak ere galdu egin zuen: Arineketan taldea 18-1 nagusitu zitzaion Elgetako taldeari.

Arineketan arrasatearrak eta Chievo bergararrak lehenengo aldiz ari dira parte hartzen Elgetako txapelketan. Lehenengo jardunaldian maila ona daukatela erakutsi zuten bi talde horiek, eta areto futbol txapelketa irabazteko faboritoen artean daude.

ASTERO PARTIDUEN ETA EMAITZEN BERRI
GOIBEKOKALEk txapelketaren jarraipena egingo du. Barikuero zapatuan izango diren partiduen berri emango du. Partidu bakoi-tzean epaile lanak zein taldek egin behar duen ere aurreratuko dugu. Aurreko asteko emaitzak eta sailkapena zelan doan ere aurreratuko dizuegu.



MTS taldekoek ezin izan zuten iazko txapelketa irabazi.

PARTIDUAK

- 15:00: MTS-La Kokotxa.
Komando Piperrak.
- 16:00: Komando Piperrak-Bar El Arco
La Kokotxa
- 17:00: Vicios-Chievo.
Bar El Arco
- 18:00: Spial-Arineketan.
Vicios

EMAITZAK

Vicios-MTS	5-2
Spias-Txapela	6-3
Arineketan-La Kokotxa	18-1
Chievo-Bar El Arco	10-0

SAILKAPENA

Taldea	P	J
1. Arineketan	2	1
2. Chievo	2	1
3. Spias	2	1
4. Vicios	2	1
5. MTS	0	1
6. Txapela	0	1
7. Bar El Arco	0	1
8. La Kokotxa	0	1
9. Comando piperrak	0	0

JAIXAK

Mexikoko mariachia ekarriko dabe Ferixa Nagusixak alaitzeko

O.E.

Ekaiñaren 28xan hasiko dira aurtengo Ferixa Nagusixak. Jai batzordekuek guztiz zehaztuta dauke egitaraua. Egitarauko ekitaldi garrantzitsuenetakua domekan izango da, *La magia de Iñigo* ikuskizunaren Estatu maillako aurkezpena egingo dabe-eta Espaloian.

Ekaiñaren 28xan eta 30ian artian izango dira aurtengo jaiak. Jaixetarako bi hillabete geratzen diran arren, jai batzordekuek zehaztu dabe aurtengo Ferixa Nagusixetako egitaraua zein izango dan.

Ume, gazte, nagusi eta jubilaundako egitarau zabala osatu dabe. Umiendako ekitaldixak egu-nero egongo dira. Eguen eta barikuan umientzat parkia ekarriko dabe. Zapatu goizian, Txirri,

Mirri eta Txirribitonekin batera ibiltzen dan *Elvi bentrilokoa* etorriko da, eta arratsaldian umien danborradia egongo da.

Jubilauen Egunian Los cinco Bilbainos taldekuak gerturatuko dira Elgetara.

Jaixetako musikia be zehaztuta dago. Eguen gabian, Etzakit taldea etorriko da. Barikuan, Los Lopez de Noschiscian mariachia kalez kale ibilliko da iluntzian eta gero gabian plazan joko dabe. Zapatuan, AEB eta Mexiko arteko mugatik Sombras Norteñas *tex-mex* taldea gerturatuko da. Gauerdixan, Les Tambeus de Feu piroteknia ikuskizuna egongo da. Gaztetxian be kontzertuak egongo dira barikuan eta zapatuan. Barikuan, ibarreko taldien kontzertua izango da, seguruenik, eta zapaturako talde ezagunen bat ekarri nahi dabe.

Barikuan, Trialsin erakustaldi bat be egingo dabe plazan. Bigarren urtez jarraixan asto karrera be izango da zapatuan.

DAVID COOPERFIELD-EN IKASLIA

Egitarauko ekintza aipagarriena *La magia de Iñigo* ikuskizuna izango da. Hori ekitaldixori domeka illuntzian izango da. Iñigo maguak munduan oso ezagunak diren maguekin egin dattu bere ikasketak, Juan Tamariz, Jose Carrol, Joaquin Ayala eta Lance Burton-ekin, adibidez. Aipatu, David Copperfield-ekin be ibilli dala ilusionismuan teknika barrirenak ikasten.

Jaixei bukaeria Markeliñe taldiak emongo dotsa, *DSO* kale antzerkixakin.

Espaloian egingo daben ekitaldixakin, ekaiñaren 15ian aurkeztuko dabe jaixetako egitaraua.



Errepide bazterrak garbitu dituzte

Aste osoan Elgeta inguruko errepideak garbitzen jardun dute Diputazioko langileek. Errepide bazter guztiak garbi-garbi utzi dituztela onartu behar da. Errepideen gaia atera dugunez, esan beharra dago kexa ugari jaso ditugula Kanpanzarrera bidean Diputazioak jarri zituen bazter babesak direla eta. Izan ere, bidetik gertuegi jarri zituzten bazter babes horiek. /O.E.

Aintzane denda



Zugandik gertu, behar duzun beste

Domingo Iturbe 4, ELGETA
Tel: 943 768297

GOIO SARASUA

Igeltserotza lanak
Teilatuak
Sukaldeak
Etxaurreak
Komunak

Otzango Behekoa Baserria
OIKINA
Tel: 943 86 01 56

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26
ELGETA
Tel: 768190

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

ERRETRATUZAHARRA

Herri Eskolako
lehen mailakoak,
1989an

Hona hemen 1989an sei urte zeuzkaten Herri Eskolako neska-mutikoak. Ikasturte hartan bertan hasi zen lehenengo mailan argazkiko talde hau. Asun Zabalo zen euren irakaslea.

Bi urte zeuzkatenetik elkarrekin ikasi zuten argazkiko ume hauek guztiek, eta elkarrekin jarraitu zuten seigarren mailara arte. 22 ume hasi ziren, baina lehenengo mailan dagoneko 18 bakarrik ari ziren. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikastera Bergarara joan ziren, eta DBH egin zuten lehenengoak izan ziren, gainera.

Argazkia Guraso Elkartearen egoitzaren aurrean aterata dago; Lapatza baserria ikus dezakegu atzean. Toki horretan aparkalekuak daude gaur egun, eta asfaltatuta dago bidea, argazkian harri koskorrak ikusten diren arren.

Zutik, ezkerretik eskumara: Ugaitz Iturbe, Xabier Biteri, Jon Kortabarria, Jon Pagaldai, Idurre Bengoa, Maialen Madariaga, David Martín, Larraitz Berraondo eta Mikel Pagaldai.



Lurrean eserita, ezkerretik eskumara: Mikel Fortuna, Josu Agirre, Irune Manzisidor, Iban Unanue, Nagore Beitia, Josu Zubikarai, Erik Lizarralde, Sergio Sánchez eta Asier Odriozola.

Argazkia: Maripi Manzisidor

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Antzuola,
San Josetik
ikusita

Horra hor Antzuolako herriaren ikuspegi bat San Joserako bidetik ateratako bi argazkitan. Lehen Bareño zurrategia zegoen tokian, gaur egun etxeak egin dituzte eta zeharo aldatu da tokia. Lantegiaren oroimenez jarri zioten Zurrategi izena auzoari. Bareño zurrategia zen herriko zaharrena, eta duela 25 bat urte itxi zuten enpresa.



1960 Balbino Bareño zurrategia ikus dezakegu argazkian, eta atzean eliza eta kanpandorrea ere, bi urte lehenago berritua.



2002 Antzuolako zurrategi zaharrena zegoen tokian etxe multzoak egin zituzten duela urte batzuk, eta Zurrategi izena jarri zioten auzoari.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49



IPINTZA

BATXILERGOAK (DBHO)

Boni Laskurain 17-19. Tel. 943 76 31 42 / 20 82
Ordutegia: 09:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 17:00etara

**Aurre matrikulazio epea
maiatzaren 2tik 10era**

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
TEKNOLOGIKOA

Bide eta ate guztiak zabaltzen
dituzten ikasketak:
unibertsitatea eta
goi mailako ziklo formatiboak

MIGUEL ALTUNA

HEZIKETA ZIKLOAK (LH)

Ibargarai 1. Tel. 943 76 24 91 / 38 40
Posta elektronikoa: imaltuna@sarenet.es / www.imaltuna.com
Ordutegia: 09:00etatik 14:00era

**Aurre matrikulazio epea
ekainaren 3tik 12ra**

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Mekanizazioa
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
Administrarritza Kudeaketa*

GOI MAILAKO ZIKLOAK

Administrazio eta finantzak
Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
Mekanizazio bidezko produkzioa
Proiektu mekanikoen garapena
Plastiko eta Kautxugintza
Idazkaritza*



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA

B e r g a r a k o i k a s t e t x e p u b l i k o a k

GRUPO **ARKAUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



ARKAUZ Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

ETXE MOBEL Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
MUEBLI **ARETXABAETA**

ARKAUZ Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**
SUKALDE INTEGRALA **ARETXABAETA**

ARKAUZ Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ELEKTROGAILUAK **ARETXABAETA** **expert**